

Gazako oin-oharrak

Gidoia eta irudiak: **Joe Sacco**

Itzulpena: **Julen Gabiria**

Astiberri Ediciones. Bilbao, 2025

Zuri-beltza. Azal biguna

432 orrialde. 16,8 x 23,6 cm. 29 euro

Nobela Grafikoa bilduma

ISBN: 978-84-10332-83-6

Azaroaren 20an salgai

Maltan jaio, Australian hazi eta AEBetan bizi den marrazkilariak Palestinari buruzko trilogia osatu du **Gazako oin-oharrak** komikiarekin, **Palestina** eta **Gerra Gazan** obren ondoren

PALESTINARI BURUZKO TRILOGIA, JOE SACCOREN ESKUTIK

Rafah, Gazako Zerrendaren hego-hegoan kokatutako hiria, toki errukarria da. Bukatu gabeko hormigoizko eraikinak batetik, zaborrez jositako kalezuloak bestetik. Karrika estuak, ume txikiz eta lanik gabeko gizonez lepo. Buldozerrek txiki-txiki eginda utzi dituzte Rafahko toki asko, Egiptoko mugan. Gaur eta beti, Rafah hiri nabarmena da gatazkarik sutsuenetako baten erdian.

Artxiboen zokorik sakonenean, 1956ko gertakari odoltsu bat dago kukututa: soldadu israeldarrek 111 palestinar akabatu zituzten tiroz. Hilketaz jositako historia luze bateko oin-oharra dirudien arren, Rafahko egun hark –odol hotzean burututako masakrea ala akats izugarria– agerian uzten ditu konponbiderik gabeko gerra baten atzean dauden errealitate ugariak. Gertatutakoaren muinera iritsi nahian, Joe Sacco erabat murgiltzen da Rafahko eta handik gertu dagoen Khan Yunisko

eguneroko bizitzan, Gazaren iragana eta oraina biluzteraino. *Gazako oin-oharrak* obrak berrogeita hamar urteko denbora-tartea hartzen du, bizi-bizi mugitzen da gerra batetik bestera, eta iheslarien, eskola-umeen, alargunen zein xekeen ahotsak biltzen ditu: finean, tragedia baten esentzia jasotzen du.

Palestina (Astiberri, 2023) eta *Gerra Gazan* (Astiberri, 2024) liburuetan bezala, Saccoren kazetaritza bisual bereziak xehetasun zoragarri eta zehatzez islatu du hango paisaia konplexua. *Gazako oin-oharrak* Saccoren orain arteko obrarik anbiziotsuena da, eta egileak, gure garaiko gatazka izugarri batetik abiatuta, esperientzia intimo eta gertukoa eskaintzen digu.

2009ko ehun libururik onenetako bat, *Publishers Weekly* aldizkariaren arabera

2009ko Nobela Grafikorik Onena, *The Observer* aldizkariaren arabera


“Urteko gertakari editorial handienetakoa”.

The Times

“Garrantzitsuena ez da lehena iristea, baizik ondoen kontatzea.
Eta hori Saccok lortzen du”.


Diego E. Barros, *Jot Down*

EGILEA



Joe Sacco (Kirkop, Malta, 1960). Urtebete zuela, Melbournera (Australia) joan zen familiarekin bizitzera, eta han igaro zuen haurtzaroa. 1972an, berriz, Los Angelesera (AEB) aldatu ziren. Kazetaritzan graduatu zen Oregongo Unibertsitatean. 1983an, marrazkilari profesional gisa hasi zen lanean. 1986an Los Angelesera itzuli zen, Fantagraphics argitaletxe independentean lan egitera. 1988 eta 1992. urteen artean, mundu osoan bidaiatzen ibili zen. Palestinako egonaldia eta Gaza eta Zisjordanian lurraldeetan bizitakoaren ondorioz, *Palestina* jaio zen (Astiberri, 2023), gero American Book Award saria lortuko zuen lana. Obra horri esker, komikia baliabide dokumental bihurtzeko oinarriak finkatu ziren, eta Saccok, bere sorkuntza-ibilbide luzean, jarraipena eman zion proposamen mota horri, autobiografian eta kazetaritzan oinarritutako hainbat nobela grafiko sortuz. Bere azken lana *Gerra Gazan* (Astiberri, 2024) da, eta euskaraz argitaratu zaion azken obra, berriz, *Gazako oin-oharrak* (Astiberri, 2025).

JOE SACCOREN BESTE LAN BAT EUSKARAZ



Palestina. Euskarazko edizioa

2. edizioa

296 orrialde. 25 euro

ISBN: 978-84-19670-35-9



Gerra Gazan

32 orrialde. 8 euro

ISBN: 978-84-10332-26-3

